

NARRATIBA

Oroitzapenen kronika

AZUKRE XEHEA GATZ LARRIA

Mikel Hernandez Abaitua
Alberdania, 2010
156 orrialde. 16 euro

Iban BALERDI

Ohiko fikziozko liburu bati heltzean, istorioa nolakoa izango den izaten dut zalantza nagusia. Hots, zer kontatuko didan, kontatuko didan horrek harrapatuko nauen eta gozatuko ote dudan. Ondoren, estiloari, erabilitako egitura edo lexikoari erreparatzen diet. Kontatutako horren guztiaren atzean, benetako zenbat gertaera sartu dituen pentsatzea ere atsegin dut. Horrelako pertsonaiaren bati gertatuko al zitzaion halako zerbait? Deskribatzen duen toki horretan egonda al nago? Agian ez, baina ziur egiazkoak diren xehetasunak erabili dituela asmatzeko garaian.

Esku artean duguna bezalako liburu baten aurrean, berriz, beste era bateko sensazioak izaten ditut. Existitzen den pertsona bat, existitzen diren pertsonen buruz mintzo da, existitzen diren tokiek eta benetan jazotako gertaerez. Baina asmatutakorik egongo al da bertan? Edota, zer utziko ote du esan gabe? Zalantza desberdinak, irudimena martxan jartzeko bestelako abiapuntuak.

Mikel Hernandez Abaituaren azken berrogei urteetako oroitzapenen kronika bat da honako hau, berak bizitako eta ikusitakoak denboraren iragazkitik pasa ostean iritsi zaiguna. Denbora tarte horretan, frankismoaren azkenalditik gaur



egun arte, gauza asko pasatu dira bai munduan, bai Euskal Herrian. Horietako batzuk liburuan agertzen dira, hala nola, Woodstock-eko musika jaialdi entzutea, euskarazko ikasketen sorrera edota ETaren jarduna. Antzeko gaien inguruan baitabil autorea kontakizun guztian zehar, alde batetik, kultur arloari eta bereziki literaturari buruz, eta, bestetik, egoera politikoari buruz. Eta ez horietara nahita lerratu delako, bere bizitzaren parte garrantzitsu direlako baizik.

Literaturaren gaineko erreferentziak ia etengabeak dira, euskal filologiako ikasketen garaitik hasi eta Ramon Saizarbitoriaren obrari buruz egindako tesiaren

aurkezpena arte. Tartean hainbat eta hainbat pertsona ezagunen izenak, esaterako, Josu Landa, Koldo Izagirre, Tere Irastortza, Bernardo Atxaga, eta abar. Sasoiko zenbait literatur talderen sorrera edo eboluzioaz ere badihardu, Oh! Euzkadi, Pott eta Susarenaz, besteak beste. Batzuekin nahiz besteekin izandako harremanak, tirabirak, haserreak eta adiskidetzak kontatzen ditu, baita gertatutako anekdota desberdinak ere. Halaber, bere hasiera-hasierako ipuinek eta ondorengo liburuek izandako harrera nolakoa izan zen azaltzen digu.

Politikarekin lotutakoak dira garrantzia handia duten beste kontu batzuk. Azken lau hamarkadetan gure herrian kokatutako liburua izanik, eta gertutik egoera gogorak bizitzea egokitu zitzaionez, ez da harrizkoa honek guztiak toki zabala hartzea edo uneoro presente egotea. Gainera nabari da oso modu sentiberan bizi izan zituela hauetako egoera asko, beragan eragina izan zutela eta bere garapen pertsonalean mugarririk bihurtu zirela.

Finean oso modu atseginean irakurtzen den liburua da eta Euskal Herrian hamarkada hauetan jazotakoak hobeto ulertzen laguntzen duena. Euskara eta euskal literaturarekin erlazioan ututako jendea behar bezala ezagutzeko baliagarria da, asko baitira hemen kontatzen direnak, ziurrenik konturen batzuk narrazio hauetatik landa utziko zituen arren. Apustu ausarta egin du autoreak lan honetarako, eta agian estilo bereko beste batzuei bidea ireki die.



Mikel IBARGUREN

Euskararekikoak

Euskararen Nazioarteko Egunaren karietara aho bete euskaraz entzun ditugu Lakuako sailburuak, adierazpen eta ekitaldi ugari direla medio. Antza, egitarau "beteak" antolatatu dituzte mundu orok euskaraz egin dezan. Era horretan, euskaldunok badugu egun ofizial bat euskaraz egin ahal izateko eta lehendakariak badu berea poesia erreztaldia egiteko. Baina, ekitaldi ofizial eta su-festa arranditsu hauen ifrentzutik azaldu zaigu Koldo Izagirre oso bestelako kontuekin.

"Autopsiarako frogak" ekarri ditu bere azken liburuan idazle pasaitarrak, latexko eskularruak jantzita hausnarketa zorrotz bezain kritikoa eginez. Hizkuntzarekikoak ditu aipagai oraingoan, baina idazle baten eskutik (aho zorrotzeko bisturiarekin) egindako ekarria izan da. Literaturaren esparrutik errealitate linguistikoaren erradiografia zehatza egiten baitu, autodefinizio linguistikoaren aldarria egitearekin batera. Uste dut George Steinerrek esan zuela, hizkuntza bat hiltzen denean, mundua ulertzeko, mundua begiratzeko modua galtzen dela eta, beraz, hizkuntzarenak garen aldetik, gauza bera gerta dakiguke epe jakin batean.

Unamunok jada enbalsamatu nahi izan zuen bere garaian, euskara erlikia moduan gorde. Egun, Aimery Picaud berriak ez dira falta, ez eta euskara euskaltzaleen entretenimendurako kulturaren beste elementu bat gehiago bailitza onartzeko prest liratekeenak ere. Nolanahi den ere, era batera edo bestera, bere kasa hiltzen utziaz edo eraso eginez, linguistidioak etenik ez du, sinetsita bainago lehengo eta oraingo pentsamendu bakarrak ez dituela egiazko hitzun eleanitzak gogoko, ez duela herri honen izana sentitzen.

Torrealdaren "Euskararen Liburu Beltza" lanarekin batera, Izagirrearen hau ezinbestekoa zaigu euskararen DNA biologikoa ezagutzeko. Hots, geure izatearen funtsa nola zafratua den ohar gaitzen. Eta frogak eskura ditugu, politiko formatuan.

KALERATU BERRIAK



EUSKARAREN ZAPALKUNTZAZ

AUTOPSIARAKO FROGAK
Koldo Izagirre
Susa, 2010
270 orrialde. 19 euro

Garai ezberdinetako pasarte eta dokumentuak gogora ekarri, Koldo Izagirrek (Pasaia, 1953) euskarak jaso dituen erasoak, gaur egun bizi duen egoera eta hizkuntzaren beraren inguruko hainbat kontu bildu ditu saiakera honetan. Euskara bera protagonista duen lan honetarako «autodefinizio linguistiko» aldarrikatzen du.



TRES HISTORIAS, UNA CIUDAD

NOVELAS DE SANTA MARÍA
Juan Carlos Onetti
RBA, 2010
800 páginas. 35 euros

Este volumen recoge tres de las obras más importantes de Juan Carlos Onetti, tres historias que transcurren en la misma ciudad: 'La vida breve' (1950), 'El astillero' (1962) y 'Juntacadáveres' (1964). Historias en las que el autor presenta un mundo paralelo lleno de imaginación para refugiarse de la realidad.



CUARENTA DÍAS DE TENSIÓN

CUARENTA DÍAS DE MAYO
Mikel Alvira
Tarttalo, 2010
272 páginas. 20 euros

Iruñea, 1955. Tres historias paralelas: la de Manuel, activista que pretende atacar contra Franco; la del inspector Serrano, que recibe la orden de detener el complot; y la de Margot, compañera de Manuel, que tendrá que cumplir su más difícil misión. Mikel Alvira (Iruñea, 1969) es autor de "El silencio de las hayas".



HISTORIA DE INTRIGA Y ASESINATO

UN AFFAIRE CASI PERFECTO
Elizabeth Subercaseaux
Siruela, 2010
196 páginas. 17,95 euros

Narración que huye de los tópicos y apuesta por un punto de vista complejo ante un crimen machista. Un thriller con tintes políticos y sociales en el Chile de hoy que reflexiona sobre la naturaleza de la condición humana y el hecho de que, en una situación extrema, cualquiera puede reaccionar de la manera más imprevista.